

**PLE 04-JUL-24 (6/CP) AURREKONTU-ALDAKETA IRUÑEKO UDALAREN 2024KO AURREKONTUAN - EZOHICO KREDITUA BALIOGABETZEA.**

PLE 04-JUL-24 (6/CP)

« IKUSIRIK Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 6an hartutako erabaki bidez onetsitako aurrekontu-aldaketak (3/CP), Bulego Estrategikoko zuzendariaren txostena –RUNA2025 proiektua gauzatzean inplikaturako udal-arlo eta -zerbitzuei esleitutako kredituen banaketa berri bat onartzeko beharra justifikatzen duena–, Aurrekontuen eta Azterlanen Bulegoaren txostena, zeinak aurrekontu egonkortasunari buruz indarrean den araudia betetzen den aztertzen baitu, eta aurrekontu-aldaketei buruz indarrean dauden arauak, honako hau ERABAKITZEN DA:

1.- Ezohiko kreditua baliogabetzea –Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 6an hartutako erabaki bidez (3/CP) onetsia– 30/92250/623000 aurrekontu-aplikazioan, 157.300,00 eurokoa, eta zenbateko bera itzultzea 30/17212/227060 aplikazioaren kredituari, zeina partzialki murriztu baitzen ezohiko kreditu hori finantzatzeko onetsitako baja baten bidez.

2.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau Iruñeko Udalaren iragarki-taulan jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean. Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena indarra hartzeko.



E80032C11AAB00884EC66513F720C4DAHc